

**ABENDAÑO IKASTOLAREN
HEZKUNTZA PROIEKTUA
PROYECTO EDUCATIVO
DE LA IKASTOLA ABENDAÑO**

1. SARRERA	INTRODUCCIÓN	3
2. NON GAUDE?	ZENTROAREN TESTUINGURUA / ¿DÓNDE ESTAMOS? CONTEXTO DEL CENTRO	5
3. NOR GARA?	IKASTOLAKO PRINTZIPIOAK / ¿QUIÉNES SOMOS? PRINCIPIOS DE LA IKASTOLA	9
4. ZER LORTU NAHI DUGU?	IKASTOLAKO HELBURUAK / ¿QUÉ QUEREMOS CONSEGUIR? OBJETIVOS DE LA IKASTOLA	12
5. NOLA LORTU NAHI DUGU?	¿CÓMO LO QUEREMOS CONSEGUIR?	
	5.1 CURRÍCULUMAREN ESPARRUA / ÁMBITO CURRICULAR	
	5.1.1. METODOLOGIA / METODOLOGÍA	14
	5.1.2. EBALUAZIOA / EVALUACIÓN	15
	5.1.3. HEZKUNTZA ESKAINTZA / OFERTA EDUCATIVA	16
	5.1.4. ANIZTASUNARI ERANTZUNA / RESPUESTA A LA DIVERSIDAD	18
	5.1.5. ORIENTABIDEA ETA TUTORETZA / ORIENTACIÓN Y TUTORÍA	22
	5.1.6. HIZKUNTZEN ERABILERA ETA TRATAMENDUA / USO Y TRATAMIENTO DE LAS LENGUAS	24
	5.1.7. PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA / FORMACIÓN E INNOVACIÓN	26
	5.2. ANTOLAMENDUAREN ESPARRUA / ÁMBITO ORGANIZATIVO	
	5.2.1. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDUA, FUNTZIONAMENDUA ETA KUDEAKETA / ORGANIZACIÓN, FUNCIONAMIENTO Y GESTIÓN DEL CENTRO	27
	5.2.2. PARTE HARTZEKO EREDUA / MODELO DE PARTICIPACIÓN	28
	5.2.3. BIZIKIDETZA / CONVIVENCIA	32
6. INDARRALDIA	ETA MANTENTZEA / VIGENCIA Y MANTENIMIENTO	34

1. SARRERA 1. INTRODUCCIÓN

Hezkuntza Proiektu honek ikastolak hurrengo lau urteetan jarraituko duen ibilbidea seinalatu nahi du; ikastolako antolamendu eta plangintzaren oinarria izango da urte horietan eta zentroan egiten diren proposamen, jarduera eta esperientzia guztiei koherentzia emango die.

Guraso eta irakasleen ordezkariak elkarlanean egindako proiektua da.

Este proyecto Educativo quiere señalar la trayectoria que la ikastola va a seguir en los próximos cuatro años, y ser la base de la organización y planificación durante ese período de tiempo, dando coherencia a todas las propuestas, actividades y experiencias que se realicen durante su vigencia.

Es un proyecto realizado en colaboración por representantes de las familias y del profesorado.

NON GAUDE?
¿DÓNDE ESTAMOS?

2. ZENTROAREN TESTUINGURUA

2. CONTEXTO DEL CENTRO

- **Abendaño ikastola San Martin auzoan kokatutako ikastola publikoa da. 1982-83 ikasturtean ematen ditu bere lehenengo urratsak, Diputazioko ikastolen sarearen barruan. Bere gaur egungo eraikuntza nagusia, Abendaño ikastola izan baino lehen, Marqués de Santillana eskola publikoa izan zen. Gaur egun 700 ikasle inguru hartzen ditu.** La ikastola Abendaño es un centro público situado en el barrio de San Martín. Inicia su andadura en el curso 1982-83, dentro de la red de ikastolas de la Diputación Foral de Álava. Su actual edificio principal, antes de ser ikastola Abendaño, fue la escuela pública Marqués de Santillana. Hoy en día, acoge alrededor de 700 alumnos.
- **Familien ia herena San Martin auzoan bizi da, eta ia laurdena Zabalganan. Gainontzeko ikasleak Borinbizkarra, Lakua eta Ariznabarratik etortzen dira, nahiz eta Vitoria-Gasteizko beste auzo batzuetako ikasle talde txiki bat ere badagoen.** Casi un tercio de las familias vive en el mismo barrio de San Martín, y casi un cuarto en el de Zabalgana. El resto procede de los barrios de Borinbizkarra, Lakua y Ariznabarra, aunque también hay un pequeño grupo de alumnos-as pertenecientes a otros barrios.
- **Gure ikastolak bi kokaleku ezberdin ditu, nahiz eta biak elkarren gertu dauden. Batean (Ortiz de Urbina kalea, 15) Haur Hezkuntzako eraikinak daude, eta bestean (Mexiko kalea, 9) Lehen Hezkuntzakoak. Hiru eraikin nagusi ditu, bi Haur Hezkuntzan eta bat Lehen Hezkuntzan.** Nuestra ikastola está ubicada en dos emplazamientos diferentes, si bien ambos están próximos uno del otro. En uno de ellos se encuentran los edificios de Educación Infantil (calle Ortiz de Urbina, 15) y en el otro (calle Méjico, nº 9), los de Primaria. Consta de tres edificios principales, dos en Educación Infantil y uno en Primaria.
 - **Haur Hezkuntzako bi eraikinetako batean bi urteko haurren hiru gelak eta jantokia daude kokatuta. Bestean etapa honetako bigarren zikloko hiru mailak ematen dira (guztira bederatzi ikasgela). Bi eraikin hauen artean, estalitako frontoi txiki bat dago.** En uno de los dos edificios de Educación Infantil se encuentran las tres aulas de los niños-as de dos años y el comedor. En el otro edificio se imparten los tres cursos del segundo ciclo de esa misma etapa (nueve aulas en total). Entre ambos edificios hay un pequeño frontón cubierto.
 - **Lehen Hezkuntzako eraikuntzan Lehen Hezkuntzako sei mailak ematen dira (guztira hemezortzi ikasgela). Eraikuntza nagusi honetaz gain, badira beste hiru eraikuntza txikiago: polikiroldegia, frontoia eta jantokia.** En el edificio de Educación Primaria se imparten los seis cursos de esta etapa (dieciocho aulas en total). Además de este edificio principal, hay otros tres más pequeños: el polideportivo, el frontón y el comedor.

- **85 langile inguruk lan egiten du Abendaño ikastolan:** En la ikastola Abendaño trabajan alrededor de 85 trabajadores-as:
 - o **30 tutore** 30 tutoras
 - o **6-7espezialista (Musika, Gorputz Hezkuntza eta Ingelesa)** 6-7 especialistas (Música, Educación Física e Inglés)
 - o **6 laguntza irakasle (2 PT, 2 hezitzaile, logopeda eta aholkularia)** 6 profesores-as de apoyo (2 PTs, 2 educadoras, una logopeda y el consultor)
 - o **6 garbitzaile eta 2 atezain** 6 trabajadores-as de la limpieza y 2 conserjes
 - o **3 sukaldari** 3 cocineras
 - o **Jantokiko arduraduna** La responsable del comedor
 - o **28-30 begirale** 28-30 monitores-as
 - o **Zuzendaritza taldeko 3 irakasle** 3 profesores-as del equipo directivo

- **2015. urteko urrian pasatutako galdetegiaren arabera, zeina familien %50ak erantzun zuen, ikasleen gurasoen ikasketa mailari dagokionean, asko dira ikasketa unibertsitario, diplomaturak, lanbide heziketa edota batxilergoa dutenak, eta oinarrizko hezkuntza soilik dutenak %10era ere ez dira iristen.** Según una encuesta enviada en octubre de 2015, a la cual respondieron el 50% de las familias, en lo referente al nivel académico de los padres y madres, hay muchos que poseen licenciatura, diplomatura, formación profesional o bachiller, siendo el porcentaje de los que tienen únicamente estudios elementales inferior al 10%.

- **Galdetegi horren arabera ere, ama eta aiten arteko langabezi tasa ehuneko hamarrera ere ez da iristen.** Según esa misma encuesta también, la tasa de paro entre los padres y madres tampoco llega al 10%.

- **Familien hizkuntza nagusia gaztelania da. Hala ere, badago kopuru handi samarra, herena gutxi gora-behera, etxean euskaraz egiten duena. Horretaz gain, familia batzuetan (% 4 gutxi gora-behera) etxean beste hizkuntza bat erabiltzen da.** La lengua utilizada mayoritariamente en las familias es el castellano. Aun así, hay un grupo importante de familias (un tercio, aproximadamente) que en casa habla en euskara. Además de esto, en algunas familias (4%) se utiliza otra lengua.

- **Atzerriko 30 lurralde ezberdinetatik etorritako familiak ditugu ikastolan, ikasleen % 9 gutxi gora-behera.** Tenemos familias procedentes de 30 naciones extranjeras diferentes, lo que representa el 9%, aproximadamente, del alumnado.

- **Abendaño Ikastolako Gurasoen Elkartea MALIZHAEZA da, Arabako toponimiatik hartutako izena. Ikastolako gurasoek osatzen duten elkarte honek ez dauka dirurik irabazteko asmorik. Bere helburua ikastolaren funtzionamendua hobetzea da, zuzendaritza eta beste erakunderekin batera, beti ere giza baloreak, errespetua eta elkartasuna, besteak beste, bultzatuz.** La Asociación de Padres y Madres de la Ikastola Abendaño se denomina MALIZHAEZA, nombre tomado de la toponimia alavesa. Es una Asociación sin ánimo de lucro, formada por padres y madres de los alumnos-as, en la que se intenta, junto con la Dirección del Centro y otros organismos, un mejor funcionamiento de la ikastola, potenciando siempre valores tales como el respeto y la solidaridad.

NOR GARA?
¿QUIÉNES SOMOS?

3. IKASTOLAKO PRINTZIOAK / **3. PRINCIPIOS DE LA IKASTOLA**

I

HEZIKETA INTEGRALA EDUCACIÓN INTEGRAL

- **Abendaño ikastolako betebeharrrik garrantzitsuena herritar onak hezitzea da. Hori lortzeko, oinarrizko giza-balio edo kompetentzia hauek garatu behar dira:**
 - **Nork bere burua ezagutzeko, maitatzeko eta bere bizitza- proiektua egiteko gaitasuna.**
 - **Giza-talde konplexuetan parte hartzeko gaitasuna. Honek eskatzen du entzutea, pertsona zein kulturen arteko esberdintatsunak ulertzea, desadostasunak errespetatzea, gehiegikeriak baztertzea eta arazoak modu baketsu eta demokratikoz konpontzea.**
 - **Disziplina zientifiko, artistiko eta sozialez baliatuta, nork bere bizitza gidatzeko gaitasuna.**
- La tarea fundamental de la ikastola Abendaño es formar buenos ciudadanos y buenas ciudadanas. Para conseguirlo, es necesario desarrollar las siguientes competencias o cualidades humanas básicas:
 - La capacidad para conocerse y quererse a uno mismo y elaborar el propio proyecto vital.
 - La capacidad para funcionar en grupos sociales complejos, lo cual requiere escuchar, comprender las diferencias entre personas y culturas, respetar las discrepancias, desterrar los abusos y ser capaz de resolver los conflictos de manera pacífica, dialogada y democrática.
 - La capacidad para valerse de las disciplinas científicas, artísticas, humanísticas y sociales para gobernar la propia vida.

II

ELKARLANA COLABORACIÓN

- **Abendaño ikastolak benetako hezkuntza-komunitate izan behar du, irekia eta parte hartzailea, non guztiak haren arduradun sentitzen diren eta non guztiak daukaten hura hobetzeko aukera.**
- La ikastola Abendaño debe ser una auténtica comunidad educativa, abierta y participativa, de la que todos-as se sientan responsables y que todos-as puedan mejorar.

III

EUSKARAREN ALDEKO KONPROMEZUA COMPROMISO EN FAVOR DEL EUSKARA

- **Abendaño ikastolan Euskara hizkuntza nagusia izatea nahi dugu eta horren alde lan egiteko konpromezua hartzen dugu.**
- Queremos que en la ikastola Abendaño el Euskara sea la lengua más utilizada por todos-as, y trabajamos por mantener ese compromiso.

IV

KOHERENTZIA COHERENCIA

- **Abendaño ikastolan uste dugu hezkuntza-komunitatea osatzen dugun heldu guztiok neska-mutilen eredu garela, eta, horren ondorioz, dokumentu honetan idatzitako printzipioekin koherentziaz jokatu behar dugula.**
- Creemos que, siendo todos los miembros adultos de la ikastola Abendaño modelo para los niños y niñas que acuden a ella, tenemos la obligación de ser coherentes con los principios reflejados en este documento.

ZER LORTU NAHI DUGU?
¿QUÉ QUEREMOS
CONSEGUIR?

4. IKASTOLAKO HELBURUAK / 4. OBJETIVOS DE LA IKASTOLA

- 1. Ikasleek barneratzea bizitzarako oinarri diren giza-balioak, hala nola ilusioa, esfortzua, sormena, autonomia, autoestimua, konfidantza, errespetua, enpatia, elkartasuna, elkarrekin bizitzeko gaitasuna, naturarekiko estimua, disziplinen ezagutza...**
Interiorizar las cualidades humanas básicas, tales como la ilusión, el esfuerzo, la creatividad, la autonomía, la autoestima, la confianza, el respeto, la empatía, la solidaridad, la capacidad para convivir, el aprecio a la naturaleza, el conocimiento de las disciplinas...
- 2. Giza-balio hauek zeharka lantzea arlo guztietan eta sistematikoki tutoretza saioetan.** Trabajar estos valores de manera transversal en todas las áreas, y de manera sistemática en las horas de tutoría.
- 3. Hezkuntza-komunitateko kide guztiei esku hartzeko bideak eskaintzea, haren partaide sentitzeko eta hura hobetzeko aukera edukitzeko.** Ofrecer vías de participación a todos los miembros de la comunidad educativa para que todos se sientan parte de ella y tengan la oportunidad de mejorarla.
- 4. Ikastolako kide guztiak harremanetan jartzeko komunikazio sare erraz, azkar eta eraginkorra edukitzea.** Dotar a la ikastola de una red de comunicación fácil, rápida y eficaz con la que poner en contacto a todos sus miembros.
- 5. Euskara euskal kulturaren altxor nagusizat hartzea eta hura sustatzeko lan egitea.** Considerar el Euskara el principal patrimonio de la cultura vasca y comprometerse a impulsarlo.
- 6. Euskaraz egiteko motibazioa suspertzea eta ikasleen arteko hartu-emanak bultzatzea ikasgelan.** Promover la motivación para expresarse en euskara y potenciar las relaciones interpersonales entre el alumnado dentro del aula.
- 7. Guraso-talde baten lankidetzarekin, familien Euskararen aldeko inplikazioa sustatzea.** En colaboración con un grupo de padres y madres, impulsar el compromiso de las familias en favor del Euskara.
- 8. Hezkuntza-komunitateko heldu guztiak neska-mutilen eredu izatea eta dokumentu honetan bildutako printzipioekiko koherentziaz jokatzeko.** Ser todas las personas adultas de la comunidad educativa modelo para el alumnado y actuar con coherencia en relación a los principios recogidos en este documento.
- 9. Helburu hauek Ikasturteko Planetan isladatzea eta kurtsoan zehar eta Oroitzean zer puntutaraino bete diren ebaluatzea.** Reflejar estos objetivos en cada Plan Anual de Centro y revisar durante el curso y en la Memoria su grado de cumplimiento.

NOLA LORTU NAHI DUGU?
¿CÓMO LO QUEREMOS
CONSEGUIR?

5.1 CURRICULUMAREN ESPARRUA / ÁMBITO CURRICULAR

5.1.1. METODOLOGIA / 5.1.1. METODOLOGÍA

Neska-mutilen konpetentziak edo oinarrizko giza-balioak garatzea eskolako betebeharririk garrantzitsuena da. Hau lortzeko, irakasleek edukiak eremu edo arloka antolatu eta, horien bidez, konpetentzien garapena sustatzen dute. Ezaguerarik gabe ez dago konpetentziarik, baina konpetentziak ez dira ezaguerak soilik.

Eduki berriak aurkezteko orduan, irakasleak neska-mutilen aurre ezagupenetatik abiatzen dira, eta landu beharreko gaiari buruzko elkarrizketa sortarazten dute, ikasleen ekarpenak aintzat hartuz. Bestalde, irakasleak ardura, esfortzua, konstantzia, arreta edota errespetua bezalako baloreak sustatzen ahalegintzen dira, tradizionalak izan arren, ezinbestekoak direlako ikasteko.

La principal tarea del centro es trabajar las competencias o cualidades humanas básicas del alumnado. Para conseguir esto, el profesorado organiza los contenidos por ámbitos o áreas y, a través de ellos, promueve el desarrollo de dichas competencias. Sin conocimientos no hay competencias, pero las competencias son mucho más que los conocimientos.

A la hora de presentar contenidos nuevos, las profesoras parten de los conocimientos previos de los niños y estimulan el debate en torno al tema a trabajar, tomando en cuenta las aportaciones del alumnado. Por otro lado, el profesorado se esfuerza en promover ciertos valores como la responsabilidad, el esfuerzo, la constancia, la atención o el respeto, que, aunque tradicionales, resultan imprescindibles para el aprendizaje.

Bestalde, eskolako ikasle guztiei erantzun egokia ematea, norberaren ezaugarriak kontutan hartuta, irakasleen erronkarik handiena da. Ikuspegi honetatik, beharrezkoa da, ahal den neurrian, aukera ezberdinak ematea ikasleei.

Dar una respuesta adecuada a todo el alumnado del centro, teniendo en cuenta su diversidad, es el principal reto del profesorado. Desde este punto de vista, es necesario, en la medida de lo posible, ofrecer el mayor abanico de posibilidades a los alumn@s.

Honekin batera, tresna teknologiko eta baliabide digitalen erabilera sustatzea ezinbestekoa da.

Además de esto, es necesario fomentar la utilización de herramientas tecnológicas y recursos digitales.

5.1.2. EBALUAZIOA / 5.1.2.EVALUACIÓN

Irakasleak etengabe aritzen dira beraien ikasleak eta taldeak ebaluatzen, eta etengabeko ebaluazio horren ondorioz erabakiak hartzen dituzte ikasturtean zehar, helburu, edukin, metodologia, antolakuntza edo beste esparru batzuei buruzkoak izan daitezkeenak. Erabaki horien xedea ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobetzea izanik, zentroaren ardura da irakasleei babesa eta baliabide posible guztiak eskeintzea beren ebaluazioan igerritako arazoak ahalik eta ondoen konpontzeko, eta haiei eskaintzea koordinazioa, esperientzien trukea eta etengabeko formakuntza ahalbidetzen dituen antolamendua.

Ebaluazioak badu beste ikuspegi garrantzitsu bat: egiaztatzea edo kalifikatzea edo notak ipintzea, eta bertan isladatzen da zer puntutaraino izan diren arrakastatsuak irakasleek igerritako arazoak konpontzeko hartu diren erabakiak. Nota hauetan, ikaslearen besteekiko jarrerak (konpetentzia soziala) badu pisurik kalifikazio globaletan, eta arlo guztietan ehuneko jakina dauka (%10etik %50era). Eraitza txarren aurrean, zentroaren ardura da haiek eragin dituzten zergatuei buruzko hausnarketa egin eta haiek hobetzen saiatzea.

Bestalde, garrantzitsua da curriculumeko konpetentzia guztiak ebaluatzea eta ondo zehaztea bakoitzaren barruan zer baloratuko den. Era berean, ebaluatzeko iturri, tresna eta egoera ugari erabili behar dira, diagnostiko egokia bermatzeko. Halaber, ikasleen autoebaluazioa egon behar da, motibazio eta inplikazio eragile gisa.

El profesorado continuamente está evaluando a cada alumno-a y a los grupos en los que trabaja, y fruto de esta continua evaluación son todas las decisiones que va tomando a lo largo del curso, y que pueden afectar a aspectos relacionados con los objetivos, contenidos, metodología, organización u otros aspectos. Siendo la finalidad de estas decisiones siempre mejorar el proceso de enseñanza-aprendizaje, es tarea primordial del centro ofrecer a los profesores-as todo el apoyo y recursos posibles para solucionar los problemas que van detectando, así como dotarlo de una organización que permita la coordinación, el intercambio de experiencias y la formación continua.

La evaluación tiene también otra faceta importante: la de acreditar o calificar o poner notas, y en ella se refleja hasta qué punto ha sido exitosa la intervención del profesorado ante los problemas detectados. En estas notas, la actitud del alumno/a para con los demás (competencia social) tiene un peso importante en las calificaciones globales, representando unos porcentajes determinados en función del área (entre un 10 y un 50 %). Cuando existen malos resultados, es responsabilidad del centro reflexionar sobre las causas que los han provocado e intentar mejorarlos.

Por otro lado, es muy importante evaluar todas las competencias del currículo, y concretar qué se valorará dentro de cada una de ellas. Así mismo, se deben utilizar abundantes contextos, fuentes y herramientas de evaluación, para asegurar un diagnóstico lo más certero posible. Del mismo modo, la autoevaluación del alumno-a debe estar presente, como factor de motivación e implicación en su propio proceso de aprendizaje.

5.1.3. HEZKUNTZA-ESKAINNTZA / 5.1.3. OFERTA EDUCATIVA

- **Abendaño ikastola D ereduko zentrua da, eta euskara du hizkuntza nagusi eta behikularra. Gure helburu nagusienetako bat ikasleek euskara ezagutu, erabili eta maitatzea da, eta, euskararekin batera, Euskal Herriko ondare kulturalaren beste elementu batzuk ere bai.**
 - **Honekin batera, neska-mutilen konpetentziak (ezagutzak, jarrerak, baloreak, trebetasunak eta emozioak) lantzea, eskolako betebeharririk garrantzitsuena da. Hau lortzeko, irakasleek edukiak eremu edo arloka antolatu eta, haien bidez, konpetentzien garapena sustatzen dute.**
 - **Ikasle guztiei erantzun egokia ematea, norberaren ezaugarriak kontutan hartuta, ikastolako erronkarik handiena da.**
 - **Halaber, klaustroaren konpromezua da irakasleek beren jarduerari buruzko hausnarketa egitea eta, hura hobetzeko asmotan, proposamen eta esperientzia pedagogiko berriak aztertzea.**
 - **Eskola ordutegitik kanpo, ikastolak jantoki zerbitzua eskeintzen du eguerdian. Zerbitzu honen helburu nagusiak dira, ikasleei dieta osasungarri eta orekatua eskeintzeaz gain, neska-mutilek denetik jaten ikastea eta eguerdiko aisialdian lagunekin errespetuz erlazionatu eta jolastea.**
 - **AMPAk, bere aldetik, beste bi zerbitzu eskeintzen ditu ordutegi lektibotik kanpo: goizeko ludoteka eta eskolaz kanpoko ekintzak. Ekintza hauen eskeintza oso zabala da, eta bi atal nagusitan sailkatzen da: kulturala eta kirol-atala. AMPA ikasle guztien partehartzea bermatzen ahalegintzen da.**
 - **Zerbitzu hauek, familia-kontziliazioa erraztea dute helburu nagusienetako bat.**
-
- La ikastola Abendaño es un centro del modelo D, y el euskara es su lengua principal y vehicular. Uno de nuestros principales objetivos es que el alumnado la conozca, la utilice y la quiera, y junto a ella, también otras riquezas culturales de Euskal Herria.
 - Unido a esto, la principal tarea del centro es trabajar las competencias (conocimientos, actitudes, valores, habilidades y emociones) del alumnado. Para conseguirlo, el profesorado organiza por ámbitos o áreas los contenidos y, a través de ellos, promueve el desarrollo de dichas competencias.
 - El principal reto del centro es dar a cada alumno-a una respuesta adecuada a sus necesidades.
 - Es, asimismo, compromiso del claustro reflexionar sobre su actividad educativa y analizar propuestas y experiencias pedagógicas nuevas para mejorarla.

- Fuera del horario escolar, la ikastola ofrece al mediodía el servicio del comedor. Son objetivos primordiales de este servicio que los comensales, además de alimentarse de manera sana y equilibrada, aprendan a comer de todo y dediquen el tiempo libre del mediodía a relacionarse y jugar con sus compañeros de manera respetuosa.
- Por su parte, el AMPA del centro ofrece otros dos servicios fuera del horario lectivo: la ludoteca matinal y las actividades extraescolares. La oferta de actividades extraescolares es muy amplia, y se divide en dos áreas: cultural y deportiva. El AMPA intenta que resulten asequibles a todo el alumnado.
- Uno de los principales objetivos de estos servicios fuera del horario escolar es facilitar la conciliación familiar.

5.1.4. IKASLEEN ANIZTASUNARI ERANTZUTEA /

5.1.4. RESPUESTA A LA DIVERSIDAD DEL ALUMNADO

Eskolako ikasle guztiei erantzun egokia ematea, norberaren ezaugarriak kontutan hartuta, gure erronkarik handiena da. Hona hemen asmo hori gauzatzeko burutzen edo burutu nahi ditugun ekintzetako batzuk:

Dar una respuesta adecuada a todo el alumnado del centro, teniendo en cuenta su diversidad, es nuestro principal reto. He aquí algunas de las acciones que llevamos o pretendemos llevar a cabo para poner en práctica este propósito:

Haur Hezkuntzan ikasleen balizko arazoan antzemate goiztiarra:

Detección precoz de los problemas del alumnado en la etapa de Educación Infantil:

- **2015-16 ikasturtean, Haurren Garapeneko Jarraipen protokoloaren lehenengo fasea, Garapenaren Ohiko Arreta deiturikoa, jarri zen martxan.**
- **Lehenengo fase hau, zeina tutoreek aholkulariaren laguntzaz betetzen duten, balio handiko tresna da, prebentzioaren ikuspuntutik, balizko garapen-alterazioei antzemateko.**
- **Lehenengo fase honetan lortutako emaitzek azterketa sakonagoa eskatzen dutenean, bigarren fasea, Antzemate Zehatza fasea, jartzen da martxan, ikastolako aholkulariaren esku-hartzearen bitartez eta Hezkuntza Behar Bereziaketako aholkularitzaren laguntza pedagogikoarekin.**
- **Bukatzeko, Hezkuntza Behar Bereziaketako aholkularitzak balorazio psikopedagogikoa egin edo, kasuan kasuan, nora bideratu aztertuko du.**
- Durante el curso 2015-16 se puso en marcha en el centro la primera fase, denominada Vigilancia Rutinaria del Desarrollo (VRD), de un Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil.
- Esta primera fase, implantada por las tutoras con el asesoramiento del consultor del centro, es una herramienta importante, desde una perspectiva preventiva, para la detección de posibles alteraciones del desarrollo.
- Cuando los resultados obtenidos en esa primera fase requieren una valoración más precisa, se pone en marcha la segunda fase, denominada Detección Específica, con la intervención del consultor del centro y con el apoyo psicopedagógico de las asesorías de Necesidades Educativas Especiales.
- Finalmente, es la asesoría de alumnos y alumnas con Necesidades Educativas Especiales la que realiza una valoración psicopedagógica o estudie las posibles derivaciones de cada caso.

Inklusiorako zenbait baliabide metodologikoren erabilera, hala nola:

Utilización de algunos recursos metodológicos para la inclusión, tales como:

- **Lan-talde txikiak sortzea, gela barruan, guztien parte-hartzea errazteko.**
- **Neska-mutilen arteko laguntzak baliabide pedagogiko gisa erabilzea.**
- **Errespetu eta onarpen giroa sustatzea ikasleen artean.**
- **Patio orduetan, integraziorako proposamenak egin eta praktikan jartzea.**
- **Interesa eta jakinmina piztea. Ikaskuntza praktikoa bultzatzea.**
- **Planteamendu global edo disziplina artekoak bultzatzea.**
- **Lan egiteko aukera edo modu ezberdinak eskeintzea. Sormena sustatzea.**
- **Oinarrizko edukiak lantzeko orduan, fitxen edota azterketen formatoa zaintzea: izan daitezen argiak, zehatzak, irudiekin...**
- Crear pequeños grupos de trabajo dentro del aula, para facilitar la participación de todo el alumnado.
- Utilizar las ayudas entre los compañeros-as como recurso pedagógico.
- Promover un ambiente de respeto y aceptación entre los alumnos-as.
- En las horas de recreo, realizar propuestas de integración y ponerlas en práctica.
- Despertar el interés y las ganas de aprender. Potenciar un aprendizaje práctico.
- Impulsar propuestas globales o interdisciplinares.
- Ofrecer distintas opciones o modos de realizar el trabajo. Fomentar la creatividad.
- A la hora de trabajar los contenidos básicos, cuidar el formato de las fichas o controles: que sean claros, precisos, con imágenes...

Honetaz gain, LHko 3. mailan ikasleak berririo taldekatzen dira, gela guztietan heterogeneotasun maila berdintsua izan dadin.

Además de esto, al llegar a 3º de primaria se vuelve a distribuir al alumnado en los grupos, para que el grado de heterogeneidad sea similar en cada uno de ellos.

Ikasle atzerritarrentzako Harrera Plana aurrera eraman beharrezkoa den bakoitzean:

Poner en marcha el Plan de Acogida para el alumnado inmigrante siempre que sea necesario:

- **Plan honek atzerriko ikasle berriak ikastetxera egokitzen laguntzea du helburu.**
- **Lehenengo ikaslearen egoera pertsonala (arloan sozio-afektiboa), eskolatzeko ibilbidea eta arloan instrumentaletan duen maila aztertzen dira.**
- **Ondoren, aurreko datuak kontutan hartuta, gela batean kokatu eta norbanakako lan-plana egiten zaio ikasle etorri berriari. Plan honetan, ikasleak lortu beharreko oinarritzko helburuak finkatzen dira. Helburu hauen artean, ikaslearen sozializazioari buruzkoak garrantzi handikotzat jotzen dira.**
- **Bukatzeko, zentroan dauden gainontzeko beharrak eta baliabideak ikusita, laguntzak antolatzen dira.**

- Este plan tiene como objetivo ayudar al alumnado extranjero nuevo a adaptarse al centro.
- En primer lugar, se estudia la situación personal (aspectos socio-afectivos) del alumno-a, su trayectoria escolar y su nivel en las áreas instrumentales.
- Después, teniendo en cuenta los datos anteriores, se adjudica al niño-a un aula y se le realiza un plan individual de trabajo. En este plan se especifican los objetivos básicos que el alumno-a debe conseguir. Entre estos objetivos, se consideran de gran importancia los relacionados con la socialización del niño-a.
- Finalmente, teniendo siempre en cuenta las demás necesidades y los recursos, se organizan los apoyos.

Hezkuntza errefortzu eta laguntzen antolaketa:

Organización de apoyos y refuerzos educativos:

- **Laguntza eta indartze neurriak ohiko gela barruan ematen dira oro har.**
- **Bikoizketak errefortzu neurri garrantzitsua da ikastolan eta Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztietan egiten dira, bi urteko umeen geletan izan ezik. Haur Hezkuntzan Euskara indartzeko erabiltzen dira eta Lehen Hezkuntzan Hobekuntza Planean jarritako helburuen lorpena errazteko.**
- **Laguntza ematen duten pedagogia terapeutika eta gainontzeko irakasle eta hezitzaileen arreta zuzeneko orduak, ikasleen beharren arabera banatzen dira. Berritzeguneko aholkulariak, ikastolak eskatutako diagnostikoak egin eta gero, heziketa laguntza behar duten ikasleen zerrenda bidaltzen digu, eta zerrenda hori oinarritzat hartzen da gero laguntzak antolatzeko.**
- Los apoyos y refuerzos educativos se dan habitualmente dentro del aula ordinaria.
- Los desdobles son una medida de refuerzo importante en la ikastola y se realizan en todos los niveles de Infantil y Primaria, salvo en las aulas de dos años; en Infantil se llevan a cabo para reforzar el Euskara y en Primaria para facilitar el logro de los objetivos del Plan de Mejora.
- Las horas de atención directa del profesorado de pedagogía terapéutica y del resto de profesoras y educadoras se reparten en función de las necesidades del alumnado. La orientadora del Berritzegune, después de realizar los diagnósticos solicitados por el centro, nos envía la lista de los alumnos y alumnas que necesitan apoyo educativo, y luego esa lista se utiliza como base para organizar las ayudas.

5.1.5. ORIENTABIDEA ETA TUTORETZA / 5.1.5. ORIENTACIÓN Y TUTORÍA

- **Tutoretza edo orientabidea esaten zaio tutoreak, familia eta irakas-talde osoaren lankidetzan, ikaslearen arlo akademiko, pertsonal eta soziala garatzeko burutzen duen lanari.**
- Se denomina tutoría u orientación al trabajo que realiza la tutora, en cooperación con la familia y el resto del profesorado, para desarrollar los aspectos académico, personal y social de cada alumno y alumna.

- **Familia eta ikastetxearen arteko lankidetzatutoretza lanaren ardatz nagusietako bat da. Eskolan ikasleekin egiten den lana arrakastatsua izateko, ezinbestekoa da lankidetzatutoretza hau. Hori dela eta, alderdi hori ezin da inolaz ere alde batera utzi, eta ongi zaindu behar da.**
Honetaz gain, ikastolak bertako langile guztien hausnarketa pedagogikoa, elkarlana eta koordinaketa sustatu behar ditu, eta ikasle zein familiei proiektu koherentea aurkeztu.
- La cooperación entre la familia y el centro es uno de los ejes principales de la actividad tutorial. Para que el trabajo que se realiza en la ikastola tenga éxito, es imprescindible esta cooperación. Por este motivo, no se puede relegar de ninguna manera este aspecto.
Además de esto, la ikastola tiene que potenciar la reflexión pedagógica, la cooperación y la coordinación entre todas las personas que trabajan en el centro, y así presentar a familias y alumnado un proyecto coherente.

- **Ikasle berrien harrera eta, oro har, aldaketa edo transizio guztiak ondo zaindu behar dira. Ziklo edo etapa baten hasieran, tutorea aldatzen denean, ikasle berriak taldean sartzen direnean... ezarritako edo ezarri beharreko harremanak aldatzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da lehen harreman hauek zaindu eta erraztea eta harrera, aurkezpen eta taldean kohesioa lortzeko jarduerak egitea. Dena den, azken hau ikasturte osoan zehar eta sistematikoki landu beharreko atala da.**
- Hay que cuidar las incorporaciones del alumnado nuevo, así como todos los procesos de cambio o transición. Cuando hay cambio de etapa o de ciclo, cuando cambia la tutora, cuando vienen niños y niñas nuevos al centro... las relaciones cambian. Por esto es muy importante cuidar y facilitar estas nuevas relaciones y realizar actividades de acogida, presentación y cohesión de grupo. En todo caso, esto último es algo que se debe trabajar de manera sistemática, y a lo largo de todo el curso.

- **Atal akademikoan, ikasleek eskolako lanak ordenaz, autonomiaz eta eraginkortasunez egin ahal izateko lan-ohitura indibidualak eta taldekoak, ikasgelakoak zein etxeakoak, bultzatu behar du ikastetxeak. Oso garrantzitsua da irakasleek maila edo ziklo bakoitzerako funtsezkotzat hartzen diren estrategiak, arauak eta irizpideak batzea eta koordinatzea.**
- En el aspecto académico, para que el alumnado realice las tareas escolares de manera ordenada, autónoma y eficaz, el centro tiene que fomentar hábitos de trabajo individuales y de grupo, hábitos de trabajo de aula y de casa. Es de gran importancia que el profesorado unifique y coordine las estrategias, normas y criterios básicos para cada nivel o ciclo.

- **Ikasle bakoitzaren ongizateari garrantzi handia eman behar dio eskolak, norberarekiko balioak landuz, hala nola: autoestimua, norberaren ezagutza, norberaren kontrola, genero eta sexu-nortasuna, asertibitatea, arazoei aurre egitea, erabakiak hartzea...**
- El centro tiene que dar gran importancia al bienestar individual de cada niño y niña, y trabajar los valores intrapersonales, tales como: la autoestima, el conocimiento de uno mismo, el propio control, la identidad sexual y de género, la asertividad, el afrontar los problemas, el tomar decisiones...

- **Gizarte-alderdiari dagokionez, lortu behar da neska-mutilek ikaskide, familiakide eta zentruko langile guztiekin errespetuzko jarrera izatea, eta giza-balioak eta giza-trebetasunak sistematikoki landu.**
- En el ámbito social, hay que lograr que los niños y niñas mantengan una relación de respeto con sus compañeros, familiares y personal del centro, y trabajar de manera sistemática los valores y las habilidades sociales.

5.1.6. HIZKUNTZEN ERABILERA ETA TRATAMENDUA /

5.1.6. USO Y TRATAMIENTO DE LAS LENGUAS

- **Ikastolako hizkuntza behikularra euskara da, eta hasierako irakurketa-idazketa prozesua euskaraz egiten da. Euskaraz gain, gaztelania eta ingelesa ere lantzen ditugu: gaztelania 1. mailatik eta ingelesa Haur Hezkuntzatik (4 urtetik aurrera).**
- El euskara es la lengua vehicular de la ikastola, y la lecto-escritura se inicia en esta lengua. Además del euskara, se trabajan también la lengua castellana y el inglés: la lengua castellana desde 1º de Primaria, y el inglés desde Infantil (de 4 años en adelante).

- **Ikastolako ohar eta dokumentu gehienak, gurasoekin konpartitzen direnak bereziki, euskaraz eta gaztelaniaz idazten dira. Familiekin mantentzen diren elkarrizketak euskaraz edo gaztelera egiten dira, gurasoek bietako zein hizkuntza nahi duten erabili erabakitzen dutelarik. Gelako bilerak, oro har, gaztelaniaz egiten dira, baina tarteka zenbait azalpen euskaraz egiten dira; guraso euskaldunek aukera dute euskaraz parte hartzeko. Eskolaz kanpoko ekintzetako irakasleak eta jantokiko begiraleak euskaldunak dira eta ikasleei euskaraz egiten diete.**
- La mayor parte de los documentos y avisos de la ikastola, sobre todo aquellos que se comparten con las familias, se redactan en euskara y castellano. Las entrevistas que se mantienen con los padres-madres se realizan en euskara o en castellano, siendo ellos quienes deciden qué lengua de las dos desean utilizar. Las reuniones de clase, en general, se realizan en castellano, aunque también se intercalan explicaciones en euskara; los padres-madres euskaldunes siempre pueden intervenir en euskara. Los profesores-as de las actividades extraescolares y los monitores-as del comedor son euskaldunes y se dirigen al alumnado en euskara.

- **2016-17 ikasturtetik aurrera, neska-mutilak eskolaratu eta taldekatzeko orduan, etxeko hizkuntza kontutan hartzen da, beste irizpide batzuren artean, sortzen diren taldeetan etxeko hizkuntza berbera (euskara, gaztelania, arabiera...) duten ikasle kopurua gela bakoitzean antzekoa izan dadin.**
- A partir del curso 2016-17, a la hora de escolarizar a los niños-as y de distribuirlos en diferentes grupos, se tiene en cuenta, entre otros aspectos, la lengua familiar (euskara, castellano, árabe...), para que el número de niños-as que tengan una misma lengua familiar sea similar en cada aula.

- **Irakasleak ahaleginduko dira hiru hizkuntzetan lantzen diren edukiak sailkatzen eta integratzen eta hizkuntzen arteko transferentziak indartzen. Era berean, hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko prestakuntza jarduerak burutu eta proposamen metodologiko berriak aztertuko dituzte.**
- El profesorado se esforzará por clasificar e integrar los contenidos que se trabajan en las tres lenguas y por conseguir transferencias entre ellas. Del mismo modo, realizará actividades de formación para la mejora de la enseñanza de las lenguas y analizará propuestas metodológicas nuevas.

- **Euskararen normalizazioa lortzen joateko, ahozko hizkuntza indartuko da gelan zein ikastolako esparru guztietan eta, neska-mutilek euskaraz egin dezaten, ekintza motibagarriak (kanpainak, jolasak...) prestatuko dira, eskolako leku ezberdinetan (ikasgelan, pasiloetan, patioan, jantokian...) aurrera eramango direnak.**
- Para ir logrando la normalización del euskara, se reforzará el lenguaje oral, tanto dentro del aula como en el resto de los recintos, y para que los chicos y chicas hablen en euskara, se prepararán actividades motivadoras (campañas, juegos, teatros, canciones...), que se llevarán a cabo en los distintos espacios de la ikastola: aula, pasillos, patio, comedor....

- **Familia eta ikastolako langile guztien euskararekiko inplikazioa bultzatuko da, bai ikastola barruan (gelako zenbait dinamiketan sartuz...) bai ikastolatik kanpo (ikasleek ikastolatik kanpo ere euskara entzuteko aukera izan dezaten ekintzak eskeiniz...).**
- Se potenciará la implicación de las familias hacia el euskara tanto dentro del centro (posibilitando su participación en algunas dinámicas de clase) como fuera (ofreciéndoles actividades en euskara para que los niños-as las realicen fuera de la ikastola...).

5.1.7. PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA /

5.1.7. FORMACIÓN E INNOVACIÓN

Garrantzi handikoa da klaustroa osatzen duten irakasleek beren jarduerari buruzko hausnarketa egitea eta, hura hobetzeko asmotan, proposamen edo esperientzia pedagogiko berriak aztertzea. Eginbehar hau burutzeko klaustroak asteazken eguerdiko saioen %50 erabiltzen du ikasturtean zehar. Saio hauen antolaketa kurtso hasieran egiten da, eta ildo nagusiak honako hauek izaten dira:

- **Ikastolako oinarrizko txostenak (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Ikastetxearen Curriculum Proiektua, Antolakuntza eta Jarduera Araudia...) egin edo egindakoak aztertu eta gaurkotzea.**
- **Urteroko Hobekuntza Plana egin eta ezartzea**
- **Klaustroak aukeratutako gai baten inguruko formakuntza jasotzea.**

Lan hau aurrera eramateko, Berritzeguneren laguntza eta orientabideak oso lagungarriak dira, beraiek bideratzen baitute berrikuntza prozesu hau proposamenak egiten, ikastaroak antolatzen edota gurekin batera proiektuak ezartzen.

Es de gran importancia que el profesorado del centro reflexione sobre el trabajo realizado y analice nuevas propuestas y experiencias pedagógicas con el objetivo de mejorar su actividad docente. Para llevar a cabo esta tarea, el claustro dedica un 50% de las sesiones de los miércoles al mediodía. La planificación de estas sesiones se realiza a comienzos de curso y las principales líneas de trabajo suelen ser las siguientes:

- Elaborar o analizar y actualizar la documentación básica del centro (Proyecto Educativo de Centro, Proyecto Curricular de Centro, Reglamento de Organización y Funcionamiento...).
- Realizar e implantar el Plan anual de Mejora.
- Recibir formación en torno a un tema elegido por el claustro.

Para llevar a cabo este trabajo, resultan de gran ayuda las orientaciones y la colaboración del Berritzegune, ya que es él quien guía este proceso de innovación, realizando propuestas, organizando cursos o implantando proyectos en colaboración con el centro.

5.2. ANTOLAMENDUAREN ESPARRUA / 5.2. ÁMBITO ORGANIZATIVO

5.2.1. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDUA, FUNTZIONAMENDUA ETA KUDEAKETA /

5.2.1. ORGANIZACIÓN, FUNCIONAMIENTO Y GESTIÓN DEL CENTRO

Aspektu hauek ikastolako Antolamendu eta Jardueren Arautegia dokumentuan eta ikasturtero egiten den Ikastetxeko Urteko Planean isladatzen dira. Plan hau egitea zuzendaritza taldearen ardura da eta irakasle guztien ekarpenak biltzen ditu. Gurasoek ere parte hartzen dute azken dokumentu honen erredakzioan bi atal betez: Ikastolako Ludoteka zerbitzuarena eta Eskolaz kanpoko ekintzena. Ordezkaritza Organo Gorenak onartu ondoren, Ikuskaritzara eta AMPAra bidaltzen da.

IUPak antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketaren inguruan biltzen dituen atalak hauek dira:

Estos aspectos aparecen reflejados en el Reglamento de Organización y Funcionamiento y en el Plan Anual de Centro que se elabora todos los cursos. Realizar este Plan es responsabilidad del equipo directivo y recoge las aportaciones de todo el profesorado. Los padres-madres también participan en su elaboración, cumplimentando dos apartados: el del servicio de Ludoteca y el de las Actividades Extraescolares. Tras su aprobación por el Órgano de Máxima Representación, se envía a la Inspección y al AMPA.

Los aspectos relativos a la organización, funcionamiento y gestión recogidos en el Plan Anual de Centro son los siguientes:

- **Ikasturteko egutegia** Calendario del curso
- **Ordutegia** Horario
- **Ebaluazio saioak** Sesiones de evaluación
- **Irakasleriaren eginbeharren esleipenerako irizpideak** (gelen banaketa, errekreo zaintzak, irakasleen ordezkapenak...)
Criterios de asignación de tareas del profesorado (reparto de tutorías, cuidado de los recreos, sustituciones del profesorado...)
- **Jarduera eskusibo saioen antolaketa** Organización de sesiones de dedicación exclusiva
- **Ikasleak taldekatzeko irizpideak** Criterios de agrupación del alumnado
- **Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak** Criterios de organización del apoyo y del refuerzo educativo
- **Estamentu guztien guneen antolaketarako eta banaketarako irizpideak** Criterios de organización y distribución de los espacios comunes

5.2.2. PARTE HARTZEKO EREDUA / 5.2.2. MODELO DE PARTICIPACIÓN

Hauxe da ikastolako estamentu ezberdinen parte hartzea bermatzeko daukagun antolamendua:

En la ikastola, para garantizar la participación de todos los estamentos que la componen, estamos organizados de la siguiente manera:

Irakasleen parte hartzea honako foro hauetan gauzatzen da: La participación del profesorado se lleva a cabo en los siguientes foros:

- **Batzar Pedagogikoa: Bertan zikloetako koordinatzaile, aholkulari eta ikasketa burua elkartzen dira. Talde hau behar den guztietan biltzen da, astean behin, normalean, eta gai orokorrak tratatzen dira bertan: ikasturte hasierako bilerak, Plangintza, ospakizunak, boletinak, Memoria...**
- Comisión Pedagógica: Forman parte de ella las coordinadoras de ciclo, la consultora y la jefe de estudios. Esta comisión se reúne siempre que es necesario, una vez por semana, normalmente, y en ella se tratan temas de carácter general: reuniones de comienzo de curso, Plan de Centro, celebraciones, boletines, Memoria...
- **Ziklo bilerak: Batzar hauetan zikloetako tutore eta irakasle espezifikoak elkartzen dira. Gehienetan, batzorde pedagogikoan landutako gaiak eramaten dira bilera hauetara.**
- Reuniones de ciclo: En ellas se reúnen los tutores y profesorado específico de cada ciclo. Casi siempre se llevan a estas reuniones los asuntos trabajados en la comisión pedagógica.
- **Mailako bilerak: Bertan maila bereko tutoreak elkartzen dira komuneko gaiak adosteko: irteerak, asteko edukiak, kontrolak... Bilera hauek ia astero burutzen dira.**
- Reuniones de nivel: En ellas se juntan las tutoras de un mismo curso para acordar asuntos comunes como: salidas, contenidos de la semana, controles... Estas reuniones se realizan casi semanalmente.
- **Departamentuko bilerak: Bi departamento ditugu: Ingelesa eta Heziketa Fisikoa. Arlo horietako irakasleek osatzen dituzte eta arloari buruzko erabakiak bertan hartzen dira.**
- Reuniones de departamento: Tenemos dos departamentos: Inglés y Educación Física. Los compone el profesorado de estas áreas. En las reuniones se toman decisiones relativas a dichas áreas.

- **Guraso eta irakasleek osatutako batzordeak: Hauexek dira: batzorde ekonomikoa, elkarbizitza batzordea, aldizkari batzordea, jantoki batzordea eta euskara batzordea. Hauek ikasturtean bitan elkartzen dira gutxienez.**
- Comisiones formadas por padres-madres y profesorado: Son las siguientes: comisiones económica, convivencia, revista, comedor y euskara. Se reúnen dos veces por curso, como mínimo.

- **Guraso, irakasleak ez diren zentruko langile eta irakasleek osatutako batzordea: Elkarbizitza behatokia.**
- Comisión formada por padres-madres, personal no docente y profesorado: observatorio de la convivencia.

- **Irakasleen formakuntza saioak: Saio hauetan irakasleen jarduerarekin erlazionatutako gaiak aztertzen eta eztabaidatzen dira; ideiak elkartrukatu eta hainbat erabaki hartzen dira bertan.**
- Sesiones de formación del profesorado: En estas sesiones se analizan y debaten asuntos relacionados con la actividad docente; en ellas se intercambian ideas y se toman numerosas decisiones.

- **Klaustroak: Klaustroa irakasle guztien batzarra da. Hiruhilean behin biltzen da, normalean.**
- Claustro: El claustro es la reunión de todo el profesorado. Se reúne una vez al trimestre, normalmente.

- **Ordezkaritza Organo Gorena: Zentruko estamendu ezberdinen ordezkariak osaturiko organoa da, eta ikastolan burutzen diren jarduera guztien erantzule nagusietako bat da. Hiruhilean behin biltzen da, gutxienez.**
- Órgano Máximo de Representación: Es el órgano formado por los representantes de todos los estamentos del centro. Se reúne una vez al trimestre, por lo menos.

Gure ikastolan ikasleek ez dute ordezkariarik kudeaketa organoetan. Beraien esku hartzearen esparrua gela izaten da eta beraien proposamenak eta akordioak irakaslearen ardurapean gelditzen dira.

En la ikastola el alumnado no tiene representación en los órganos de gestión. Su ámbito de participación es el aula y sus propuestas y acuerdos los asumen sus profesoras.

Familien eta irakasleak ez diren langileen parte hartzea honako antolakuntza egitura hauen bidez gauzatzen da / La participación de las familias y personal no docente se materializa a través de las siguientes estructuras organizativas:

- **Guraso eta irakasleek osatutako batzordeak: Hauexek dira: batzorde ekonomikoa, elkarbizitza batzordea, aldizkari batzordea, jantoki batzordea eta euskara batzordea. Hauek ikasturtean bitan elkartzen dira gutxienez.**
- Comisiones formadas por padres-madres y profesorado: Son las siguientes: comisiones económica, convivencia, revista, comedor y euskara. Se reúnen dos veces por curso, como mínimo.

- **Ordezkaritza Organo Gorena: Zentruko estamendu ezberdinen ordezkariak osaturiko organoa da, eta ikastolan burutzen diren jarduera guztien erantzule nagusietako bat da. Hiruhilean behin biltzen da, gutxienez.**
- Órgano Máximo de Representación: Es el órgano formado por los representantes de todos los estamentos del centro. Se reúne una vez al trimestre, por lo menos.

- **Guraso, irakasleak ez diren zentruko langile eta irakasleek osatutako batzordea: Elkarbizitza behatokia.**
- Comisión formada por padres-madres, personal no docente y profesorado: observatorio de la convivencia.

- **Guraso asanblada: Ikastolako guraso guztiak biltzen dituen organoa da.**
- Asambleas de padres-madres: Es el órgano que reúne a todos los padres-madres de la ikastola.

- **Guraso Elkarteak: Ordezkarik bat du OOGn, elkarteko gurasoen ahotsa dena. Elkarte honen jarduerarik garrantzitsuenetako bat ludoteka zerbitzua eta eskolaz kanpoko ekintzak antolatzea da, baina, horretaz gain, beste betebeharrak ere burutzen ditu, hala nola: ikastolako festa antolatu, beste ospakizun batzuen prestaketan parte hartu, ikastolako udalekuak egin...**
- Asociación de padres-madres: Posee un representante en el OMR, que es su voz en el mismo. Una de sus principales actividades es organizar el servicio de ludoteca y las actividades extraescolares, pero, además de ello, realiza muchas otras tareas, como: organizar la fiesta de la ikastola, colaborar en la preparación de otras celebraciones, organizar colonias en verano...

- **Gelako ordezkariak: Kurtso hasierako bileretan gurasoek beraien ordezkariak aukeratzen dituzte; bi normalean. Ordezkarik hauek gero gelako zenbait jarduera, proposamen, arazo... bideratzen arduratzen dira.**
- Representantes de aula: En la reunión de comienzo de curso los padres-madres eligen a sus representantes; dos, normalmente. Estos representantes se encargan posteriormente de encauzar propuestas, plantear problemas, colaborar en actividades de clase...

- **Guraso eskola: Udalak eskeinitako jarduera da hau. Adin ezberdinetako ikasleen gurasoak elkartzen dira bertan eta beraiek proposatutako gaien inguruko solasaldiak burutzen dituzte, hamabostean behin, gutxi gora-behera, psikologo baten gidaritzapean.**
- Escuela de padres-madres: Esta es una actividad ofrecida por el ayuntamiento. En ella se reúnen, cada quince días aproximadamente, padres-madres de niños de diferentes edades y realizan tertulias en torno a temas propuestos por ellos mismos, bajo la guía de un psicólogo.
- **Literatura-solasaldiak: Ekintza hau 3. zikloko zenbait gelatan egiten da, eta guraso, aiton-amona eta ahaide guztiek dute aukera bertan parte hartzeko.**
- Tertulias literarias: Esta actividad se realiza en algunas aulas del 3er ciclo, pudiendo participar en ellas todos aquellos familiares: padres, abuelos, tíos... que lo deseen.

Ikastola eta inguru natural eta sozialaren arteko elkarreragina sendotzeko, ikastola ahalegindu egiten da inguru gertuenarekin (auzoa, hiria, probintzia...) harremanak ezartzen eta ikasleei inguru horretako lekurik esanguratsuenak (museoak, parkeak, eraikinak...) ezagutarazten. Hori dela eta, hainbat irteera, bisita eta eskolaz kanpoko ekintza burutzen dira, batzuetan kanpoko elkarte edo erakundeetako eragileek sustatuta eta beste batzuetan ikastolak berak sortuta. Udala, Txagorritxuko adinekoen zentroa eta Etxegorri auzoko gazte elkarteak dira gurekin lan egiten duten eskolaz kanpoko lankide nagusiak.

Para reforzar la interacción entre el centro y el entorno natural y social, la ikastola se esfuerza por entablar relaciones con el medio más próximo (barrio, ciudad, provincia...) y dar a conocer a los niños los lugares más emblemáticos de dicho entorno (museos, parques, edificios...). Por este motivo se organizan numerosas salidas, visitas y actividades fuera del centro, algunas promovidas por organismos y asociaciones externas y otras veces por la propia ikastola. El Ayuntamiento, el Centro de Mayores Txagorritxu y la asociación de jóvenes del barrio Etxegorri son nuestros principales colaboradores en la realización de este tipo de actividades.

5.2.3. ELKARBIZITZA / 5.2.3.CONVIVENCIA

Entzutea, pertsona zein kulturen arteko desberdinatsunak ulertzea, gehiegikeriak baztertzea, arazoak modu baketsu eta demokratikoz konpontzea... ikastolak sustatu beharreko oinarritzko jarerak dira. Hau lortzeko ikastolak honako baliabide hauek erabiltzen ditu nagusiki:

Escuchar, comprender las diferencias entre las personas y culturas, desterrar los abusos, resolver los conflictos de un modo pacífico y democrático... son actitudes básicas que debe fomentar la ikastola. Para conseguirlo, el centro utiliza principalmente los siguientes recursos:

- **Tutoretza saioak: Astero tutoretza saio bat erabiltzen da elkarbizitzaren inguruko gaiak tratatzeko eta esparru horretako arazoak prebenitzeko.**
- Sesiones de tutoría: Semanalmente se dedica una sesión de tutoría para tratar temas relacionados con la convivencia y prevenir problemas en este campo.
- **Metodologia: Lan kooperatiboa (binaka edo taldeka) eta literatura solasaldiak ikasleek gizarte abileziak lortzeko oso tresna egokiak dira.**
- Metodología: El trabajo cooperativo (por parejas o equipos) y las tertulias literarias son herramientas muy valiosas para ejercitar a los niños en las habilidades sociales.
- **LHko 3. mailako ikasleen birtaldekatzea: 3. mailara heltzean, ordurarte izandako ikasle-taldeak apurtu, ikasleak nahastu eta talde berriak sortzen dira. Ikasleen arteko elkarbizitzaren ikuspuntutik, birtaldekatze honen helburuak hauexek dira: ikasleei lagun berriak egiteko aukera ematea eta talde berrian nork bere rola hobetzen laguntzea.**
- Redistribución del alumnado de 3er curso de Primaria: Al llegar al 3er curso, se rompen los grupos existentes hasta el momento y se crean otros nuevos, mezclando al alumnado. Desde el punto de vista de la convivencia entre el alumnado, los principales objetivos de esta redistribución son los siguientes: dar a los alumnos-as la posibilidad de entablar nuevas amistades y ayudar a mejorar el rol de cada cual en su nuevo grupo.
- **Udalaren tailerrak: Ikastolak ikasturtero Udalak eskeinitako elkarbizitzaren inguruko tailerretan (enpatia, emozioen adierazpena, sare sozialen erabilera zuzena, bullying-a...) parte hartzen du.**

- Talleres del Ayuntamiento: La ikastola participa todos los años en talleres sobre distintos aspectos de la convivencia (empatía, expresión de emociones, buen uso de las redes sociales, bullying...) organizados por el Ayuntamiento.
- **Elkarbizitza Behatokia: Guraso, irakasle eta irakasleak ez diren langilez osaturiko batzordea da. Bere zeregina hau da: ikastolan antzematen diren elkarbizitza arazoei buruzko hausnarketa egin eta haiek aurreikusi edo konpontzeko proposamenak aurkeztea.**
- Observatorio de la Convivencia: Es una comisión formada por padres, profesorado y personal no docente del centro. Su función es la de reflexionar sobre los problemas de convivencia detectados en el centro y realizar propuestas para prevenirlos o solucionarlos.
- **Elkarbizitza batzordea: Batzorde hau OOGko partaide batzuk osatzen dute, eta ikasleen jarrera desegokien ondorioz AJAn jasotako ezohiko neurriak hartu behar direnean elkartzen da soilik.**
- Comisión de convivencia: Esta comisión está formada por algunos miembros del OMR y únicamente se reúne cuando, debido al comportamiento inadecuado de algún alumno, hay que adoptar alguna medida correctora extraordinaria recogida en el ROF.
- **Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA): Dokumentu honetan jasotzen dira, antolamenduko beste arau eta akordio batzuren artean, ikasleen eskubide eta betebeharrak. Era berean, ikasleen jarrera desegoki larrien aurrean hartu beharreko ezohiko neurriak ere bertan jasotzen dira.**
- Reglamento de Orden y Funcionamiento (ROF): en este documento se recogen, entre otros acuerdos y normas de funcionamiento, los derechos y deberes del alumnado. Del mismo modo, también se recogen las medidas extraordinarias a tomar en el caso de comportamientos inadecuados graves del alumnado.
- **Guraso eskola: Udalak eskainitako jarduera da hau, eta elkarbizitzarekin lotutako hainbat gai aztertzen dira urtero.**
- Escuela de padres-madres: Esta es una actividad ofrecida por el Ayuntamiento, y todos los años se debaten en ella numerosos temas relacionados con la convivencia.
- **Ikasturteko helburuak: Elkarbizitza ikastolako partaide guztien lehentasuna izanik, urtero jasotzen da Ikastetxeko Urteko Planean harekin lotutako helburu nagusiren bat.**
- Objetivos del curso: siendo como es la convivencia una de las prioridades de todos los componentes de la ikastola, todos los cursos se recoge en el Plan Anual de Centro algún objetivo principal de curso relacionado con la misma.

5. INDARRALDIA ETA MANTENTZEA / 5. VIGENCIA Y MANTENIMIENTO

Hezkuntza Proiektu hau 2016-17 ikasturtean onartu da, eta lau urtez egongo da indarrean. Honen ondorioz, 2020-21 ikasturtean berriro aztertuko da.

Este proyecto Educativo ha sido aceptado en el curso 2016-17, y estará vigente durante los próximos cuatro años. Por ello, será revisado el curso 2020-21.